

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HIRIGINTZA

#### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

**Hasierako onespina ematea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen aldakuntzari, zein Krispiña kontzejuko lursail bati– 2015-1270-0007 katastro-erreferentziaduna– kalifikazio xehatua ekipamenduetarako izatetik egoitzetakora izatera aldatzeko baita (OR-10-1)**

Hauxe erabaki zuen Udalbatzak 2016ko azaroaren 4an egindako ohiko bilkuran:

1. Hasierako onespina ematea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketa bati, zein Krispiñako kontzejuko lursail bati (2015-1270-0007 katastro-erreferentziaduna) kalifikazio xehatua aldatzeko baita (ekipamendutakoa izatetik egoitzetarako izateko,OR-10-1 ). Aldaketa VI b liburuxkako Lerrokadurak eta kalifikazio xehatuari dagozkion planoetako dokumentazio grafikoa aldatzean datza, guztia Krispiñako administrazio-batzarrak 2016ko uztailaren 4an aurkeztutako agiriarekin bat.

2. Aldakuntzaren inguruko agiriak jendaurrean jartzea eta horren berri Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz ematea, edozein erakundek edo interesdunek agiriak aztertu eta hogeita hamar eguneko epean egokituz jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan. Horrez gain, Plangintzarako Aholku Batzordeari nahitaezko txostena eman dezan eskatzea, informazio publikorako aldiari. Orobat, aldaketa hau prestatu, izapidetu eta onesteko prozeduran jarraitu beharreko herritarren partaidetza programa gauzatzea. Halaber, udalerriko administrazio-batzarrei hasierako onespinen berri emango zaie, ezagutu eta txostena egin dezaten.

3. Behin betiko onetsi bitartean –edonola ere, gehienez ere bi urtez– bertan behera uztea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa honen eremuan onartze-, baimen- eta lizentzia-emate oro.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai – Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25–, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko azaroaren 10ean

*Alkate lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**